

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

• Zein dira behar dituzuen elementu garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Gure proiektua funtziona dezan hainbat baliabide beharko ditugu:

• Baliabide fisikoak:

- Lanerako lokal handi bat beharrezkoa izango da.
- Umeak entretenitzeko eta jolasteko era desberdinetako jostailuak.
- Ume berezientzako beharrezko eta ezinbesteko gauzak.
- Elikatzeko janaria beharrezkoa izango da, era desberdinetako produktuak elikadura berezia duten pertsonentzako, besteak beste diabetesa duten pertsonak edo era desberdinetako anomaliak, besteak beste laktosa hartu ezin duten pertsonak edo gluten digeritu ezin dutenak. Ikusi egin da azken datuek argitaratu dutela %2 gehiago batek ezin duela glutena hartu, beraz, era honetako elikagaien kopuru handiagoa behar izango da.
- Altzairuak beharrezkoak dira, hainbat mahai batez ere, pertsonak hauetan jolasteko eta egin behar dituzten lanak egiteko. Mahaiak tamaina ezberdinetakoak izango dira, batzuk jateko egokituak egongo direnak.

• Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:

1- Aitana: Diseinu desberdinak sortzeko gaitasuna eta salmentarako abilezia dauka.

2- Ander: Webguneak sortzeko gaitasun handia garatu du azken urteotan.

3- Jon: Oso ondo ematen zaio jendearen aurrean era erakargarrian hitz egitea. Hortaz, propaganda egiteko gaitasuna.

4- Kimetz: Une oro daki zer nolako jarrera izan behar duen pertsona bakoitzarekin. Umeak zaintzeko eta entretenitzeko gaitasuna.

5- Alvaro: Gure herrian duen lokala erabiliko dugu, aparteko egoeretan, umeak bertara eramateko beharra badago.

• Finantza-baliabideak:

Proiektuak arrakasta izan dezan funtsezkoak diren zuen baliabide ukigarri eta ukiezinak (esperientzia, kontaktua, abileziak...) zein diren zehatza.

- **Aitana:** Bere aita enpresario garrantzitsua da eta maileguak emateko prest egongo da, pegarik gabe.
- **Ander:** Bere aitona konde garrantzitsua zen eta izugarriko fortuna heredatu egin du.
- **Kimetz:** Loteria egokitu zitzaion duela zenbait urte, eta bankuan dirua gordeta dauka, gure proiektua finantzatzeko.
- **Jon:** Futbolari ospetsua da, Mirandes taldean jokatu egiten du, Espainiako bigarren mailan.

Alvaro: Hainbat lokal, garaje eta pisu ditu Euskal herrian zehar, inmobiliaria garrantzitsu familiar bat du. Hortaz, bera utziko digu enpresarako lokala.